

Agustina Aierbe Goikoetxea
Idiazabal, Gipuzkoa (1923)

Aurkibidea

Biografia

Idiazabalgo Ursuaran auzoko Pagoetagoikoa baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Ursuarango Lizardi baserrikoa. Zortzi senidetan gazteena, Idiazabalgo eskolan hamaika urte zituen arte ibili zen. Baserrian makina bat lan egin behar izan zuen, eta elkarriketan baserriko bizimoduaren inguruko kontu ugari esan zizkigun.

Zintak

IDI-010

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarriketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Data:** 2011-12-19
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Argindarra Segurari esker

- **Erref:** IDI-010/003
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:18. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Bere akorduan jarri zen "luzelektrika", argindarra. Lehenago kinkea izaten zen. Segurari sobratu egiten zitzaion argindarra eta Ursuarani eskaini zion. Hasieran zurrumurruak ibili ziren argindarra arriskutsua zela eta horrelakoak. Aita auzo-alkate egon zen.

2. Ursuarango baserriak

- **Erref:** IDI-010/005
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:04:42. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Ursuarango baserrien izenak. Elkarrengandik hurbil zeuden, "hots batera".

3. Ordiziako azokara

- **Erref:** IDI-010/007
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Baratzean lan asko egindakoa da Agustina. Ordiziara joaten zen saltzera. Etxegarateko bidera irteten zioten astoarekin garai batean. Ursuaranera errepidea egin zutenean beste era batera moldatzen ziren. Oraindik bezeroekin harremanetan jarraitzen du.

4. Etxeko arrautza gozoak

- **Erref:** IDI-010/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Arrautza asko saltzen zuen Ordizian. Fruta eta barazkiak ere bai. Oraindik badira bere arrautzekin gogoratzen direnak.

5. Aitonarekin artzain

- **Erref:** IDI-010/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Birramona ere ezagutu zuen. Makulekin ibiltzen zen. Aitona artzaina zen eta ardiak muga-mugaraino larratzea nahi izaten zuen eta neska-mutikoek ardiak ondo zaintzea. Baina beraiek geldirik ezin egon. Arratsaldetan joaten ziren ardi zain.

6. Errepide nagusia garo-gurdiz beteta

- **Erref:** IDI-010/013
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Etxegaratera joaten ziren garotara. Errepidea Idiazabal aldeko garo-gurdiz beteta egoten zen. Zuhatza (meta) egiten zen garoaz. Zuhatza zer den.

7. Sakristau eta maisu batera

- **Erref:** IDI-010/016
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:23:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Sakristau eta maisu egiten zuen urrestillar bat izan zuten. Idiazabalgo baserrietatik ere etortzen ziren eskolara. Neska eta mutil, denak batera. Irakurtzen eta idazten ikasten zuten; kenketak eta biderketak ere bai.

8. "Nazionalak" nola sartzen ziren begira

- **Erref:** IDI-010/020
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:29:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerrarekin dena nahastu zen. Anaia gerran hil zen. Gogoan du nola sartu ziren "nazionalak" Santiago egun batez, isil-isilik Etxegarartetik behera Beasain aldera. Tristura ematen omen zuen.

9. Elorritz egindako gurutzeak soroetan

- **Erref:** IDI-010/024
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:32:42. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Santa Barbarara joaten ziren artoak ereindakoan. Errogatibak egiten ziren Asentziotan. Ekaitz txarrik ez egiteko izango zen. Elorria zartatu eta San Joan egunez bedeinkatutako lorea sartzen zitzaion tartean. Harekin egindako gurutzeak soroetan ipintzen ziren.</p>

10. Ama azokatik etorri zain

- **Erref:** IDI-010/026
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Ama azokatik etortzeko deseatzten egoten ziren. Abarketak, jantziren bat... Zain zer eta zeinendako izango ote ziren.

11. Garai baten erromeria ona Ursuaranen

- **Erref:** IDI-010/029
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ez ziren dantzara joaten. Dantza lotua ezinezkoa zen. Bere gurasoen denboran, berriz, erromeria ona egiten omen zen Ursuaranen. Askoz ere jende gehiago bizi omen zen antzina.</p>

12. Ursuaran Segurakoa izatetik Idiazabalera

- **Erref:** IDI-010/032
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ursuaran Segurakoa zen lehenago. Baina errepidea zela eta haserretu ziren eta gestioak egin eta Idiazabalera pasatu zen. Inuzente Egunez agertu omen zen notizia egunkarietan.

13. 'Hogeita laugarrena degu abenduan'

- **Erref:** IDI-010/036
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:45:05. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabon Egunez kantura irteten ziren, neskak goizean eta mutilak gauean. Mutilak kantatzen zuten kantua, 'Hogeita laugarrena degu abenduan', kantatzen du.</p>

14. Ogiari patata nahastu

- **Erref:** IDI-010/041
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Patata gose denboran hasi ziren sartzen. Ogiari ere nahasten zioten; gozoa geratzen omen da, hezeagoa. Egosi, pasadorean pasatu eta irinaz nahasten zen.</p>

15. Odolkiak eta mondejuak

- **Erref:** IDI-010/044
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:56:32. **Bukatu:** 01:00:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerria hiltzen zenean ingurukoei "txerri-odolkiak" partitzen zitzaizkien. Ardia hiltzen zenean, berriz, auzokoari, ondokoari bakarrik. Odolkiak eta mondejuak nola egiten diren. Ardiarenak gozoagoak omen dira. "Artzai-txapela" zeer den.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com